



## EAE-KO DOKUMENTU-KUDEAKETA INTEGRALAREN ETA ARTXIBOEN LEGEAREN AURREPROIEKTUA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA

### I.- SARRERA

Dokumentu-kudeaketaren eta dokumentuen eta dokumentu-ondarearen babesa eta ezagutarazpena azkar aldatzen ari den mundu bat da, azken hamabost urteetan erabateko mutazioak jasan baititu. Administrazio publikoak ezin die ez ikusiarena egin egoera berriek dakartzaten erronkei, besteak beste, dokumentu-kudeaketa digitalari, dokumentazioa eskuratzeko bideen politikei, gardentasunari edo herritarren kultur edukietarako sarbideari.

Izan ere, dokumentu-kudeaketa praktikatu eta ulertzeko modua bi ikuspuntu ezberdinetatik garatu da azken urteotan:

1. Alde batetik, kultura-ikuspegia dago, XX. mendeko azken herenera arte garrantzitsuena izan zena. Ikuspegi horretan, dokumentuaren balioa ikerketarako iturri gisa edo iraganaren lekuko gisa eta ondare kultural eta dokumental gisa ulertzen da.
2. Bestetik, administrazio-ikuspegia gero eta indar handiagoa hartzen joan da XX. mende amaieratik aurrera, eta egun garrantzitsuena da. Ikuspegi horretatik, dokumentu-kudeaketa administrazioa (ondorioz, erakundeak) hobetzeko oinarrizko tresna da, baita ematen diren zerbitzuen kalitatea hobetzeko ere. Horrez gain, dokumentu-kudeaketa ezinbesteko baldintza da gardentasun-eskubidearen erabilera bermatzeko eta dokumentuetarako sarbidea ahalbidetzeko, eta ez soilik informaziorako.

Ikuspegi bikoitz hori, gainera, administrazio-errealitate eta errealitate sozial dual baten isla da: artxiboak zerbitzu kulturalak dira, baina batez ere administrazio-erakundeen informazioaren eta datuen kudeaketaren gauzapeña dira.

Bigarren eremu honetan, hainbat arazoren iturri da administrazio digitalaren garapen azkarra, besteak beste: koordinazio eta eraginkortasun eza, arauen bikoizketa edo xehetasun falta, dokumentu-kudeaketaren ikuspegi integralaren falta edozein euskarritan eta dokumentuen bizi-ziklo osoan zehar, eta gardentasuna informaziorako sarbidea izatera mugatzea, dokumentuak eskuratzeko eskubidea ukatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) da dokumentuen eta artxiboen arloa espezifikoki arautzeko legerik ez duen estatuko autonomia-erkidego bakarra da. Aipatutako bi ikuspegiak koherentziaz integratuko dituen esparru-lege baten gabeziak aspektuetako bakoitza era independentean arautzera eraman gaitu, eta horrek disfuntzioak ekarri ditu, testu honekin konpondu nahi direnak.

X. legegintzaldian arlo honetarako lege-proposamen bat egin zuen kultur arloko eskumena zuen sailak, baina ez zen izan dokumentu-ziklo osoaren arduradun ziren bi sailen artean edo kultur alderdiaren eta alderdi administratiboaren artean adostutako egitasmo bat. Pertzepzio-akatsa izan zen, eta legegintzaldi honetan konpondu da

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak aurkeztutako aurreproiektuarekin.

Kasu honetan, guztiz zeharkakoa den eskumen bati buruz ari gara, bi sailek partekatzen dutena. Horregatik, hain zuzen, lege-testuaren aplikazioaren arrakasta bermatzeko modu bat da dokumentua sortzerakoan bi ikuspegiak kontuan hartzea. Horrez gain, arlo honetan autonomia osoa duten beste administrazio batzuentzako orientagarria ere izan daiteke.

Memoria honek hauek aztertzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari artxiboaren eta dokumentu-ondarearen arloan aitortutako eskumena oinarri hartuta: zein den Euskal Autonomia Erkidegoko hasierako egoera arlo horretan, Legearen aurreproiektua egiterakoan aintzat hartutako alternatiba nagusiak, indarrean dagoen legeriaren arabera aurreproiektuaren izapidetzea, eta, azkenik, legearen onarpenak eta ondorengo aplikazioak izan dezakeen inpaktu ekonomiko eta soziala.

## **II.- DOKUMENTU-KUDEAKETA ETA -ONDAREAREN ARLOKO ESKUMENA**

Aurreproiektuaren oinarri dira Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10. artikulua 17. eta 19. apartatuetan Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako kultur arloko eskumenak. 17. apartatuan agindutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak kultur arloko eskumen eskusiboa du, Konstituzioaren 149.2. artikuluan ezarritakoa gorabehera. Artikulu horrek xedatzen duenez, autonomia-erkidegoek bereganatutako eskumenak edozein direla ere, Estatuak autonomia-erkidegoen arteko kultur harremanak erraztu behar ditu. Bestalde, 10. artikulua 19. apartatuak Autonomia Erkidegoari ematen dio ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoaren gaineko eskumen eskusiboa, eta Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen du Estatuak ezartzen dituen arau eta betebeharren betetzea, ondare hori esportazioaren eta espoliazioaren aurrean babesteko. Aipatutako kultur ondare horren barnean dago ondare kulturala, horrela adierazi baitzuen Konstituzio Auzitegiak ekainaren 8ko 103/1988 sententzian. Euskal Autonomia Erkidegoak, orobat, bere gain hartzen du ondare hori esportazioaren eta lapurretaren aurka babesteko Estatuak ezarritako arau eta betebeharrak betetzea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeetako erakunde komunak arteko harremanak arautzen dituen azaroaren 25eko 27/1983 Legeak eskumen eskusiboa esleitzen die horiei beren titulartasuneko artxiboak dagokienez. Era berean, apirilaren 7ko 2/2016, Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, autonomia osoa ematen die toki erakundeei arlo honetan.

Lege-proposamen berriak begirunea gordetzen die lurralde historikoek eta udalek arlo horretan dituzten eskumenei, 2. artikuluan ezartzen den moduan. Artikulu horrek zehazten du zer-nolako eskumen-banaketa izango den, kultur ondarearen arloan, Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen artean.

## **III.- HASIERAKO EGOERA eta OINARRIZKO NONDIK NORAKOAK**

Aurreproiektuaren xedea premiazkoak eta garrantzi handikoak diren bi gairi konponbidea ematea da:

- a) Gaur egun nagusi den ingurune digital eta teknologikoan dokumentu-kudeaketa modu integrean arautzea, edozein administrazio publikotan

aplikatzeko moduan eta zehaztasunez, eraginkortasunez eta era jasangarrian.

- b) Zeharkakotasun-, kooperazio- eta eraginkortasun-irizpideen arabera Euskadiko Artxibo Sistemaren kudeaketa-arkitektura bat finkatzea. Bi sail sustatzaileak dokumentazio publikoaren bizi-ziklo osoaren arduradun dira, eta kudeaketa-egitura batzuk sortu dituzte. Aurreproiektu honek egitura horiek sistema bakarrean integratu nahi ditu, eta horretarako giza baliabideak eta baliabide teknologikoak eskuragarri jarriko ditu, egingarria izan dadin.

Aipatutako bi horiek aurreproiektuaren oinarritzko xedeak badira ere, horiek ekitearekin batera beste bi aspektu garrantzitsu ere arautzen dira:

- c) Dokumentaziorako sarbidea. Horretarako, ezinbestekoak dira aipatutako bi kudeaketak egokiak izatea. Dokumentu-erako sarbidea da, hain zuzen, kudeaketen egokitasuna eta eraginkortasuna ikusgai jartzen duen elementua, bai administrazioari begira, bai herritarrei begira (bereziki hauei).
- d) Dokumentu-ondarearen inguruko prestakuntza, kudeaketa eta sarbidea, dokumentu-ondarea publikoa zein pribatua dela ere. Azkenik, gizarteak bere memoria sozial eta pertsonalerako esanguratsuak diren testigantzak gordetzea da dokumentu-kudeaketa arrakastatsu ororen emaitza. Sarbide-politikei loturik dagoen heinean, kontserbazio horrek zentzua du baldin eta herritar guztien eskura badago, inolako diskriminaziorik gabe, eta erabilgarria baldin bazaie haien ikerketetarako, aisialdi-planetarako, hezkuntza-programetarako edo banakoen edo gizartearen hobekuntza bilatzen duen edozein xede zilegi betetzeko, bereziki baliabide digitalen eta webgunearen bitartez.

Aurretik aipatutako xedeak honela aurkezten ditu aurreproiektuaren testuak:

1. Euskadiko Artxibo Sistemaren funtzionamendua egituratzen du, modu pragmatikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publiko eta pribatuko artxiboen koordinazio- eta kooperazio-organoa izan dadin.
2. Dokumentu publikoak koherentziaz eta koordinazioz era integralean eta zeharkakoan kudeatuko dituen sistema baten oinarriak ezartzen ditu, baita balio iraunkorra duten dokumentuen kontserbazioa eta haietarako sarbidea bermatzeko oinarriak ere, sarbidea arautzen duen arautegiari jarraikiz.
3. Dokumentuen ezabatu, kontserbatu eta identifikatzeari loturiko politika bakarra planteatzen du, arrazionala eta eraginkorra, Euskadiko oinarritzko dokumentuak modu iraunkorrean kontserba daitezzen eta dokumentu-ondarean integratu daitezzen.
4. Bermatu egiten du herritarren administrazio-dokumentu-erako eta dokumentu historiko-erako sarbidea, eta EAEko herritar guztiei ziurtatzen die administrazio publikoekin erlazionatzeko eskubidea balia dezaketela.
5. Finkatu egiten du Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Artxibo Sistema bat. Sistema horrek artxibo-zentroz osatutako sare bat du oinarrian, sistema bakar bat bezala antolatuta dagoena. Horrenbestez, kudeaketa-plataforma bakar batek biltzen ditu zentro guztiak, eta estandar berberekin eta partekatutako lanaren bitartez lortzen da integrazio errealia.

6. Sortu egiten du Euskadiko Artxibo Historikoa eta definitu egiten ditu haren funtzioak.
7. Horrez gain, definitu egiten ditu Euskadiko dokumentu-ondarearen parte izateko baldintzak, titulartasuna publikoa edo pribatua dela ere, eta artikulatu egiten ditu dokumentu-ondarearen kontserbazio-, kudeaketa- eta ezagutarazpen-politikak.

Aurreproiektuaren artikulak egun nazioartean erreferente den paradigma edo marko teorikoaren arabera dira, alegia, agirizaintza integratua edo integrala dute oinarri. Ikuspegi horrek koordinatzea eta integratzea gomendatzen du, hala dokumentuen bizi-zikloko faseen artekoa, nola fase horiei dagozkien artxibo moten artekoa, administrazio-artxiboen eta artxibo historikoen arteko ohiko deskoordinazioa gainditzeko. Ikuspuntu horretatik, aurreproiektuak gainditu egiten du dokumentuen jatorria errespetatzean edo dokumentuen bizi-zikloan bakarrik oinarritutako paradigma.

Hori da, hain zuzen, XXI. mendeko garai digitalean gehien erabiltzen den ikuspuntua hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, dokumentu elektronikoen izaerari hobeto egokitzen zaion ikuspuntua delako. Dokumentu elektronikoen kasuan, ez du zentzurik beste dokumentu analogiko batzuekin egiten den bereizketa egitea: bulegoko artxibo edo gordailu elektronikoa, tarteko artxibo edo gordailu elektronikoa eta artxibo edo gordailu elektronikoa historikoa. Bigarrenik, ikuspuntu integratua hobeto moldatzen zaiolako dokumentuen bizi-ziklo ez-linealari. Kontuan hartu behar da izaera ezberdineko berrikusketa-prozesuek fase aktibora alda ditzaketela fase erdi-aktiboan edo kontserbazio-fasean dauden dokumentuak. Hirugarrenik, oso murriztailea delako pentsatzea kontserbazio iraunkorrean dauden dokumentuak aktibo edo erabilgarri izateari utzi diotela, ez baita hala: jatorrizko erabilgarritasun administratibo-juridikoa erabilgarritasun historiko-kultural bihurtzen da. Hori bai, bateragarria da EAEn nagusi izan den agirizaintza-ereduarekin, eta horrek beste eredu baterako trantsizioa erraztuko du.

Horregatik da hain garrantzitsua dokumentu-kudeaketa arautzea; ez bakarrik aurreproiektuari izena ematen diolako, baita aurreproiektuaren zati oso garrantzitsu bat osatzen duelako eta aurreproiektuari dokumentu-ondarearen kudeaketa gehitzen diolako ere.

ISO 15489-1 (2016) arauak ezarritakoari jarraikiz, dokumentu-kudeaketa printzipio hauetan oinarritzen da:

- a) Dokumentuak sortzea, biltzea eta kudeaketa antolamendu-kudeaketaren osagai integrala da edozein testuinguruan.
- b) Dokumentuak, haien forma edo egitura edozein dela ere, erakundearen ekinbidearen froga benetakoa dira, baldin eta egiazkoak, fidagarriak, osoak eta erabilgarriak badira, eta eutsi egin behar zaie ezaugarri horiei.
- c) Dokumentuak edukiz eta metadatu osatuta daude, eta horiek dokumentuon inguruabarra, edukia eta egitura, eta nola kudeatu diren jakinarazten dituzte.
- d) Dokumentuak kudeatzeko sistemek, beren informatizazio-maila edozein dela ere, ahalbidetu egiten dute dokumentuak sortzeko, identifikatzeko eta kudeatzeko kudeaketa-tresnak aplikatzea eta prozesuak egikaritzea. Horiek alde aurretik definitutako politika eta erantzukizunen arabera dira, baita dokumentuen kudeaketarako baldintzak bete ahal izateko ezarritako

prestakuntzaren araberakoak ere.

Dokumentu guztiei aplikatzen zaie dokumentu-kudeaketa, bai dokumentu analogikoei, bai dokumentu digitalei. Hain zuzen, informazio eta komunikazioaren teknologien (IKT) ezarpen orokorrak bultzada eta ikusgaitasun handia eman dio dokumentu-kudeaketari. Erakundeak diru kopuru handiak inbertitzen ari dira beren ekintzen automatizazio integrala lortzeko. Horretarako zerbitzariak, sareak eta programak optimizatu behar dituzte prozesuak horietan guztietan aldi berean gauza daitezen. Normalizazioa ezinbestekoa da, bai prozeduretan, bai prozeduren oinarri diren dokumentuetan.

Estatu-mailan garapen hori Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalean (4/2010 Errege Dekretua) eta Segurtasun Eskema Nazionalean (3/2010 Errege Dekretua) oinarritzen da, baita jada aipatutako 39/2015 eta 40/2015 Legeetan ere.

#### IV.- AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBA NAGUSIAK

Proposatutako lege-testuaren arkitektura eta edukia nazioartean (UNESCOk emandako gutunak eta gomendioak eta Europar Batasuneko zuzentarauak), estatuan eta autonomia-erkidegoan artxibo-sistemak kudeatzeko dagoen legeriarik modernoenean inspiraturik dago, baita gardentasunean, jardunbide egokietan, dokumentuak eskuratzeko bideetan eta dokumentu-ondarearen babes eta hedapenean ere.

Zentzu horretan, estatu-mailako eta autonomia-erkidegoetako legeria aztertu da, bertatik bertara ditugunez, eta konparazio-esparru naturalak direlako. Horrez gain, nazioarteko arrakasta-kasuak ere aztertu dira. Horretarako, agirizaintza-ereduen garapena eta heldutasuna aztertu dira, nazioarteko komunitate profesionalarentzako arauen eta jardunbide egokien isla izaten baitira.

Autonomia-erkidegoetako Lege espezializatuak 16 dira:

1. 6/1986 Legea, azaroaren 28koa, Aragoiko Artxiboen ingurukoa.
2. 3/1990 Legea, otsailaren 22koa, Kanarietako Dokumentu-ondarearen eta Artxiboen ingurukoa.
3. 6/1990 Legea, apirilaren 11koa, Murtziako Eskualdeko Artxiboen eta Dokumentu-ondarearen ingurukoa.
4. 6/1991 Legea, apirilaren 19koa, Gaztela eta Leongo Artxiboen eta Dokumentu-ondarearen ingurukoa.
5. 4/1993 Legea, apirilaren 21koa, Madrilgo Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu-ondarearen ingurukoa.
6. 4/1994 Legea, maiatzaren 24koa, Errioxako Artxiboen eta Dokumentu-ondarearen ingurukoa.
7. 10/2001 Legea, uztailaren 13koa, Artxiboen eta Dokumentu-ondarearen ingurukoa (Kataluniakoa).
8. 1/2001 Legea, martxoaren 6koa, Kultur Ondarearen ingurukoa (Asturiaskoa).
9. 3/2002 Legea, ekainaren 28koa, Kantabriako Artxiboen ingurukoa.
10. 19/2002 Legea, urriaren 24koa Gaztela-Mantxako Artxibo Publikoen ingurukoa.
11. 3/2005 Legea, ekainaren 15koa, Artxiboen ingurukoa (Valentziakoa).
12. 15/2006 Legea, urriaren 17koa, Balear Uharteetako Artxiboen eta Dokumentu-ondarearen ingurukoa.
13. 12/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Artxiboen eta Dokumentuen ingurukoa.
14. 2/2007 Legea, apirilaren 12koa, Extremadurako Artxiboen eta Dokumentu-

ondarearen ingurukoa.

15. 7/2011 Legea, azaroaren 3koa, Andaluziako Dokumentuen, Artxiboen eta Dokumentu-ondarearen ingurukoa.
16. 7/2014 Legea, irailaren 26koa, Galiziako Artxiboen eta Dokumentuen ingurukoa.

Era berean, Madrilgo Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentuen inguruko Lege berriaren aurreproiektua ere erabili da (2017.10.04koa).

Autonomia-erkidegoek zehaztasun-maila oso ezberdinak erabili dituzte agirizaintza-sistemak diseinatzeko: gehienek artxiboen inguruko legeen bidez egin dute, eta batzuek ondare historikoaren inguruko legeen bidez, Estatuaren antzera. Aspaldi finkatutako sistemak dira; batzuk, Andaluziak eta Kataluniak, esaterako, bigarren lege espezifikoak dute jada. Dena den, komunean dituzten ezaugarriak baliagarriak dira indarrean dauden artxiboen eta dokumentu-ondarearen inguruko politiken informazioa emateko:

1. Kultur arloko eskumena duen sailak hartzen du kasu gehienetan eskumen hori ere. Errioxaren kasuan, adibidez, Ogasun eta Administrazio Publiko sailari esleitzen zaio, zeharkako kompetentzien bitartez. Beste kasu batzuetan, ostera, ez zaio sail konkretu bati esleitzen: zabalik uzten da araua aldatu gabe dependentzia organikoa aldatzeko bidea. Hala ere, Kultur Sailei esleitzen zaizkie *de facto* artxiboen eta dokumentu-ondarearen inguruko eskumenak.
2. Beharbada horregatik izango dute jarauntsitako dokumentu-ondarea kudeatzeko orientazio argia. Artxiboen funtzio hori oinarrizkoa eta garrantzitsua den arren, ez da ez funtzio bakarra, ez bideragarria, baldin herritarren eskubideen ikuspuntua eta erakundearen beharren ikuspuntua eransten ez bazaio, bereziki administrazio elektronikoaren testuinguruan.
3. Dena den, zeharkako funtzioa denez, dokumentu-kudeaketa sail horien eskumeneko eremu funtzional espezifikoak dela ezartzen da, eta zaila egiten zaie praktikan funtzio hori egikaritzea. Legeetako bakoitzaren onarpen-dataren arabera, ezberdintasun nabarmenak aurki daitezke: lehenago onartu zirenek beren ondare-funtzioa azpimarratzen dute, eta, ostera, berriek administrazioen efikazia eta efizientziaren zerbitzura dauden artxiboen eginkizunean jartzen dute arreta. Horrez gain, administrazioei dokumentuen bizi-ziklo integralaren ardura ematen diete, eremu funtzionalen artean.
4. Aipatutako lege guztiek jasotzen dute herritarrek dokumentu publikoetan sartzeko aukera, baita hori ezagutaraztekoa ere, baina kasuan kasuko dokumentu-ondarera mugatuta (alegia, funts historikoetara).
5. Gainera, arreta nabarmena eskaintzen diote zehapen-araubideari, eraginkortasun errealari erreparatu gabe.

Hala ere, aitortu beharra dago aipatutako Legeen manuek eta garapenek zalantza asko jarri dituztela agerian eraginkortasun errealari dagokionez. Horregatik, hain zuzen, autonomia-erkidegoetako zuzenbide konparatuak protagonismo gutxi izan du aurreproiektu hau idazterakoan; izan ere, orokorrean oso loturik dago ondare historikoaren kudeaketari, eta oso urruti dago oraindik administrazio elektronikotik eta dokumentu-kudeaketarako politika moderno eta globaletatik. Horrenbestez, etorkizuneko ingurune digital batean ibilbide luzea izan dezakeen eredu modernoago bat bilatu dugu.

Aurreproiektua idaztean, hain zuzen, honakoa lortu nahi izan ditugu: eraginkorra den testu bat sortzea, sektoreak dituen arazoak konpon ditzakeena beharrezkoa den egokitasun eta austeritatearekin. Hori lortzeko, eraginkortasunik izan ez duten araudiak saihestu ditugu. Era berean, lege-mailako testuetan desegokiak diren xehetasunak eta aurreproiektu honetatik kanpo geratzen diren eremu edo errealitateetan sartzea ere ekidin dugu.

Zentzu horretan, aipagarria da, esate baterako, V. tituluko araudia, hau da, Zehapen-araubidea. Bertan, zigor-arloko araubide orokorra oso kontuan izateaz gain, dokumentu-ondarearen babesaren edo artxibo-sistemaren kudeaketaren eremuko auzi oso espezializatuei buruz jarduten da. Azken horiek araubide orokorraren osagarri dira, eta, beraz, uste dugu guztiz eraginkorrak izango direla.

Artxiboak eta dokumentu-ondarearen kudeaketa era espezializatuan arautzen duten oinarritzko hiru arau ditugu Euskal Autonomia Erkidegoan:

1. Uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa; lege horren III. tituluaren VI. kapituluak eta IV. tituluaren I. kapituluak artxiboei eta dokumentu-ondareari buruzko guztia arautzen zuten.
2. 232/2000 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Euskadiko artxibo-zerbitzuen araudia eta agiri-ondarea arautzeko arauak onartzen dituena.
3. 174/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren artxibo-sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa. Dekretu honek espezifikoki arautzen du artxibo-sistema.

Kultur ondarearen arloan, 7/1990 Legea aldatu egin da ondarean espezializatutako hainbat sektoreren garapena dela medio: 7/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoei buruzkoa eta 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko liburutegiei buruzkoa. Gainera, Legebiltzarrean izapidetzen ari da Euskal Kultur Ondarearen Legearen aurreproiektua (2017 uztailaren 7ko gobernu-kontseiluan onartu zen).

Garatuko den azken sektorea artxiboena izango da. Euskal Kultur Ondarearen babes globalaren eremuan kokatutako arkitektura operatibo eta moderno baten barruan behin betiko finkatzen da artxiboen arauketa.

Aurreproiektuan garrantzi handikoa izan den bigarren aspektua lege-lerruna duen erakunde administratibo bat sortzea da, lege ezarritako manuak gauzatu eta egikaritu ditzakeena. Sail sustatzaile bakoitzak bere kudeaketa-egitura du. Hala ere, aurretik aipatu bezala, xedea administrazio digitalak eta autonomia-erkidegoko sektore publikoaren eremuko dokumentu-ondareak dakartzaten erronkei aurre egin ahalko dien zeharkako kudeaketa global bati forma ematea da.

Antzeko egitura bat proposatzen da kudeaketa-eremu bietarako (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailerako eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailerako:) sail bakoitzaren politika espezifikoen kudeaketa-zerbitzu bat eta artxibo-gordailu bat (Artxibo Nagusia eta Euskadiko Artxibo Historikoa, hurrenez hurren). Horrekin guztiarekin diseinatu dugun kudeaketa-sistema integralari beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak ematea da helburua. Gainera, asmo handiz egin nahi da, betiere errealistak izanez. Bestalde, kontuan hartu behar da mugatua dela autonomia-erkidegoko beste administrazio publiko batzuek artxibo-sistemak arautzeko duten gaitasuna, autonomia handia dutelako, eta, beraz, uste dugu jardunbide egokien sistema eredugarri bat sortzea izan behar dela helburua.

Aipatutako administrazio-egiturari erakundearteko aholkularitza eta koordinaziorako diziplina anitzeko bi organo gehitu behar zaizkio: alde batetik, Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordea eta, bestetik, Artxiboen Aholkularitza Kontseilua. Lehen ezinbestekoa izango da dokumentuen kudeaketa integrala eraginkorra izan dadin, eta bigarrenak ahotsa emango die sektoreko agenteei behar bezala ezarri dadin araua praktikan.

Azkenik, Euskadiko dokumentu-ondarea kudeatzeari eta babesteari dagokionez, titulartasun publiko nahiz pribatuko dokumentuak eta artxiboak bi-biak biltzen ditu arau honek. Dokumentu publikoen kasuan, Dokumentazioa Balioesteko eta Aukeratzeko eta dokumentazioan sartzeko Batzordearen balioesteko eta garbitzeko politika aktiboen bitartez sar daiteke mota horretako dokumentuetan. Dokumentu pribatuen kasuan, aldiz, aurreproiektu honek interes publikoko artxiboen kontzeptua gehitu du, baita ekimen pribatua sustatu eta babesteko hainbat arau ere. Era berean, sortu egin da Artxibo eta Dokumentu Ondarearen errolda, aipatutako ondarea ezagutu, ikuskatu eta behar bezala mantentzeko ardurak izango dituen.

## **V.- AURREPROIEKTUA IZAPIDETZEA.**

Proposatutako legegintzako ekimen honen pareko ekimenak lantzeko proiektua xedapen orokorrak lantzeko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritakoak arautzen du.

### **V.1.- Prozeduraren hasiera.**

Prozedura hastean, honako izapideak egin dira:

- a) Martxan jarri da araua lantzen hasteko prozedura, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko maiatzaren 25eko Aginduaren bidez.
- b) Idatzi egin da legearen aurreproiektua, eta idatzi baino lehen onartua izan da Gobernantza Publiko eta Autogobernuko eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuen 2018ko ...ren ...ko Aginduaren bitartez.
- c) Bai prozedurari hasiera emateko agindua, bai alde zuzenetik onartzeko agindua Legesarea jakintza partekatuko lankidetzaren bidez iragarri dira.
- d) Proposamena egin duen sailak proiektuaren txosten edo memoria ekonomikoa eman du. Memoria horretan egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena egin da, gastu eta diru-sarrerak zenbatuz. Halaber, Euskadiko administrazio publikoaren aurrekontuetan izango duen eragina neurtu du, bai eta beste administrazio publiko batzuei, banakakoei eta, oro har, ekonomiari ekarriko dien kostua ere.

Kontuan hartu dira legeriaren teknikari dagozkion hainbat kontu.

### **V.2. Jarraibidea**

Prozedurari dagokionez, beharrezkoa da autonomia-erkidegoko gainerako administrazioen parte-hartzea; izan ere, Eusko Jaurlaritzarekin batera, foru-aldundiak eta udalak arlo honetako erakunde eskudunak dira, indarrean dagoen legeriaren eta aurreproiektu honen arabera.



Era berean, beharrezkotzat jotzen da jendaurreko informazioaren izapidea. Horrez gain, entzunaldi-izapidea egitea egokia dela uste dugu, sektoreko agente eta ordezkariak ekarpenak egin ahal izateko.

Izapideak txosten hauek izan beharko ditu bere baitan:

A) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 7.3. artikuluan xedatutakoaren arabera egina.

Halaber, xedapen honi jarraikiz egindako enpresaren eraketak, martxan jartzeak eta funtzionamenduak konstituzioan duen eraginari buruzko ebaluazio-txostena ere erantsiko zaio espedienteari, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legeko 6. artikularen arabera. Xedapen horren arabera, txostena nahitaezkoa izango da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduran, eta, nolana ere, lege-proiektuekin batera igorri beharko zaio Legebiltzarrari.

B) Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politika Sailburuordetzarena), azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, bertan baitago jasota xedapen orokorrek egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea.

C) Arauaren eragina generoaren arabera neurtzeko txostena, bi oinarrietatik abiatuz: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 19. artikulua eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko akordioa.

D) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 21. artikularen arabera egina.

E) Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena. Txostena egin behar du, hala egiteko agintzen baitio Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 6.1.a artikulua (6/1989 Legea, uztailaren 6koa), Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dekretua Dekretuko 16.a artikuluan jartzen duenaren harira (apirilaren 9ko 188/2013 Dekretua).

F) Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena, apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuko 18.c) artikuluan xedatzen denarekin bat (Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dekretua).

G) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikulua aintzat hartuta.

H) Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.

I) Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.

J) Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren txostena.

K) Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren txostena.

L) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, ekonomia eta arauak kontrolatzeko. Bi arau hauetan ezartzen denaren arabera egin beharko du: Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeko III. Tituluko IV Kapituluaren; eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan, zeinaren bidez garatzen baita nola egin barruko kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea EAEn.

M) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea.

Bestalde, araua bi hizkuntzetan idatzita egon dadin, IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzulpena egingo du, testua lege-proiektua denez hala zehazten baita arau-xedapen orokorrak elektronikoki tramitatzeko tresnak dakarren erabiltzaile-eskuliburuko 4. eranskineko 2.1 zenbakiko b letran.

## **VI.- INPAKTU EKONOMIKO ETA SOZIALA**

Lege-aurreproiektuaren memoria ekonomian dago jasota eragin ekonomikoaren balorazioa. Horrenbestez, eragin sozialean jarriko dugu arreta.

Hauek dira aurreproiektuaren eraginpean dauden gizarte-sektoreak, garrantziaren arabera ordenatuta:

1. Dokumentu eta artxiboen titular publikoak, dokumentu eta artxibo horiek kudeatzen dituztenak: Lehenik eta behin, Euskadiko Administrazio Publikoa, eta neurri txikiagoan, Estatuko Administrazio Orokorra, Foru Administrazioa eta Toki-administrazioa.
2. Dokumentu eta artxiboen titular pribatuak, dokumentu eta artxibo horiek zaintzen dituztenak: pertsona fisikoak eta juridikoak.
3. Jakintza-arlo ezberdinetako ikertzaileak.
4. Herritarrak orokorrean, bi erabilera nagusiren bidez: (1) dokumentu horiek beren eskubideak aitortzeko froga gisa erabili nahi dituzten interesdunak edo jakintza-iturri gisa erabili nahi dituztenak; (2) norberaren edo senideen ikerketak gauzatu ahal izateko aurrekari historikoak kontsultatu nahi dituztenak edo hezkuntza-baliabide gisa nahiz aisialdirako edo hobekuntza pertsonal edo soziala lortzeko elementu gisa erabili nahi dituztenak.

Aurreko kapituluetan esandakoarekin bat etorritik, zinez uste dugu lege-aurreproiektu honek herritarrentzako hobekuntza nabarmen eta errealak ekarriko dituela:

1. Dokumentu-kudeaketak oso eragin positiboa du herritarrengan; izan ere, zerbitzuaren eraginkortasun orokorra hobetzeaz gain, bermeak eta dokumentuak eskuratzeko erraztasunak ematen ditu, gardentasun handiagoa ere eskaintzeaz gain.
2. Dokumentu-ondarearen arautzeko, kontuan hartuko da herritarren zerbitzura dagoen aktibo sozial irekia dela.

Aipatutako inpaktu soziala erreala izan dadin, aurreproiektuak baliabideak jarri ditu hauek lortzeko: alde batetik, dokumentu publikoak gardenak izateko eskubidea baliatu ahal izan dadin, eta, bestetik, dokumentu-ondarearen babesa, kudeaketa eta jakinarazpena bideragarriak izan daitezen. Azken hori lortzeko, titulartasun pribatuko ondareari zuzendutako sustapen- eta babes-politikak ere biltzen ditu. Izan ere, ondare horren erabilera kultur ondasunen jabari publikoko doktrinak mugatzen du. Ezinbestekoa da administrazio publikotik ezartzen ditugun mugak konpentsatzeko esfortzua egitea.

Aurreproiektuaren manuek arlo hauetan izango dituzte eraginak epe ertainera: alde batetik, herritarren eskubideak erabiltzeko praktiketan, eta, bestetik, hezkuntza- eta kultur praktiketan. Biek ala biek dute garrantzi handia komunitate-identitatea toki-, lurralde- eta herrialde-mailan aktibatzen duten kohesio sozialerako politiketan. Era berean, adinagatik, ideologiagatik, jatorriagatik edo diru-sarrerengatik ezberdinak diren gizarte-taldeak elkartzeko zubi-lana ere egiten du. Zentzu horretan, aipagarria da Euskadiko Artxibo Historikoaren kasua, herrialdeko artxibo gisa sortu zena, aurreproiektuak berronetsi egiten baitu bertan jada praktika bihurtu dena: ikuspuntu, iritzi eta sentsibiltate guztietarako elkargunea da. Alegia, denon eta denontzako artxiboa da.

Fernando Uriondo Ispizua  
Baliabide Orokorren zuzendaria  
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA  
AUTOGOBERNUA

Mikel Aizpuru Murua  
Kultura Ondarearen zuzendaria  
KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA